

## Eskulturak zerupean

Asko dira espazio irekietan dauden eskulturak. Bakarka ageri dira gehienak, edozein kale eta bidegurutzetan. Multzoa osatzen dutenak ere badaude: Donostiako Haizearen orrazia, esaterako. Elkarren ondoan eskultura asko daudenean, berriz, aire zabaleko museo gisakoa osatzen dute. Sarritan herri barruan egon ohi dira halako txoko artistikoak: pasealekuetan, parkeetan. Beste zenbaitetan, naturarekin bat eginda. Paraje ezkutuetan.

Omako basoa da bisitari gehien erakartzen duen naturagune artistikoetako bat, Agustin Ibarrolaren baso sorgindua. Eskultura bihurtutako zuhaitzak dira: 1983 eta 1991 urteen artean 500 pinuren enborrak margotu zituen, mitologia, historiaurrea eta irudimena batuta. Kortezubin (Bizkaia) dago. 1998an zaharberritu zuten. Joan zen astean, oinezkoentzat pasealeku berria eta bisita gidatuak aurkeztu zituzten. Ibon Garagarza artistak Gorlizko (Bizkaia) Ermua mendian jarritako eskulturak ez dira hain ezagunak: Ibilbide izeneko instalazioa egin zuen 2002an, labar eta bideetan arrastoak utziz. Obra oso txikiak dira, 15 cm asko jota, brontzezkoak.

Txillida Leku ere naturarekin harremanetan dago, paraje ikusgarrian. Zabalaga baserriaren inguruan 12 hektareako lorategia dago, eta bertan Eduardo Txillida eskultorearen 40 eskultura. Hori bai, Hernaniko (Gipuzkoa) museoan sartzeko ordaindu egin behar da (8,50 euro bitarte). Xabier Santxotena artistaren museoa da beste adibide bat, euskal kulturaren mitoak eta kondairak ezagutarazteko asmoz egindako parkea. Bozateko Museoa Arizkun dago (Nafarroa), eta 80 bat eskultura daude, batzuk atari zabalean eta beste batzuk horretarako propio eraikitako zortzi bordatan. Inguruak 32.000 metro koadroko zabalerara dauka, eta beste 20.000 metro koadro natura interpretatzeko zentroa da. Sarrera: 4 euro -beherapenak taldeentzat.

Sartaguda herriko (Nafarroa) Memoriaren Parkean ere badira eskulturak, artea oroimenaren mesedetan erabili, eta 36ko gerrako biktimak gogoratzeko jarriak. 3.420 lagunen izenak erakusten dituen zazpi metroko hormaz gainera, Joxe Ulibarrenaren, Nestor Basterretxearen eta Jose Ramon Andaren eskultura bana ere badaude. Gainera, hainbat literatur testu irakur daitezke parkean.

### Herri barruan

Bermeon (Bizkaia) dago herri barruko guneko artistiko esanguratsuenetako bat, Lamera parkean: Nestor Basterretxeak Udalarari oparitutako artelanak, Euskal Kosmogonia sailekoak. Jatorrizko obrak egurrean egin zituen 1972an; brontzezko erreplikak dira parkekoak. Antzeko zerbait gertatzen da

Basaurin, Agustin Ibarrolaren jaioterrian. Bere altzairuzko eskulturaz betetako pasealekua dago: Katalazarra.

Bizkaiarekin jarraituz, Gueñesen Eskulturen Parkea dute; baita Barakaldon ere, oraingoz eskultura gutxi baditu ere. Santurtziko Eskulturen Museoa, berriz, herriko hainbat txokotan jarritako 14 artelanez osatzen dute. Bilboko ibai ertzak ere badu museo tankera: hainbat eskultura dago Guggenheim museoaren eta Euskalduna jauregiaren bitarteko eremuan. Gauza bera esan daiteke Arte Ederren Museoaren kanpoaldeaz, Doña Casilda parkean.

Herri askotan daude eskultura multzoak. Zarauzko (Gipuzkoa) malekoian zazpi eskultura daude, hondartza ondoan, itsasoari begira; horietako hiru Dora Salazar artistarenak dira. Gotaine-Irabarnen (Lapurdi), 2004. urteaz geroztik Iribarne auzoan den parkea artisten esku jartzen dute Xiru jaialdiko antolatzaileek. Hala, dagoeneko bost eskultura dituzte bertan; jarri zuten azkena Nestor Basterretxearena da.

#### Aldi bateko erakusketak

Aldi bateko zerupeko erakusketak ere izaten dira. Oraintxe bertan Arte Garaikidearen III. Biurtekoa egiten dihardute Angelun (Lapurdi): ostirala arte, hamar artistak egindako hamar artelan ikus daitezke hondartzetan. Iaz, Lekeitioko (Bizkaia) Garraitz irla erakusketa toki bihurtu zen: Jose Pablo Arriagaren 15 eskultura ikus zitezkeen. Bilbon, berriz, Manolo Valdesen 17 eskultura handi jarri zituzten, eta, aurten, Auguste Rodinen zazpi. Koldobika Jauregik Gueñesen jarritako erakusketa ere oraintsu bukatu da; duela hiru urte, haren harrizko 15 eskultura egon ziren Tolosan (Gipuzkoa), tamaina handikoak.

Idoia Etxeberria.